

Prentsarako txostena

Budapesteko paper gaineko maisulanak



Otsailak 28 – maiatzak 25 2025

Erakusketa Guggenheim Bilbao Museoak antolatu du Budapesteko Arte Ederretako Museoarekin lankidetzan

Budapesteko paper gaineko maisulanak

- **Egunak: 2025eko otsailaren 28tik maiatzaren 25era**
- **Komisarioak: Kinga Bódi, Budapesteko Arte Ederren Museoa, eta Marta Blàvia, Guggenheim Bilbao Museoa**
- 150 pieza inguru mende luzeetako marrazketa- eta estampa-tradizioen erakusle: artelanen hautaketak agerian jartzen du teknika horien etengabeko berrikuntza-nahia, baita haien aniztasun teknikoa, ezaugarri nagusiak eta efektu estetiko bereizgarriak ere.
- Marrazketa, arte-adierazpen formarik zaharrena izanik, ideiak eta emozioak irudikapen bisualarekin lotzen dituen zubia da; izaera dinamikoa eta garai guztietako eskakizunetara egokitzeko ahalmenak agerian uzten dute haren garrantzia eta gaurkotasuna.
- Grabatuak, berriz, erabat eraldatu du irudien ekoizpena eta hedapena, artearen irisgarritasuna demokratizatu du eta eragin handiko garaietan katalizatzailerik izan da, hala nola Errenazimentuan eta Erreformen.
- Erakusketa hau Guggenheim Bilbao Museoaren eta Budapesteko Arte Ederren Museoa–Hungariako Galeria Nazionalaren arteko lankidetzari esker antolatu da. Izen handiko erakunde horrek nazioarteko arte-altxorak erakusten ditu, Antzinarotik XXI. mendera artekoak, baita Erdi Arotik gaur arteko arte hungariarra ere.

Guggenheim Bilbao Museoak *Budapesteko paper gaineko maisulanak* erakusketa aurkezten du. Bertan, zazpi mendetan zehar egindako marrazki eta estanpei buruzko ikuspegi zabala eskaintzen da, XV. mendetik hasi eta gaur egunera arte, eta artista handien lanak biltzen dira, besteak beste honako hauenak: Albrecht Dürer, Leonardo da Vinci, Rafael, Rembrandt, Francisco de Goya, Miklós Barabás, Henri de Toulouse Lautrec, Pablo Picasso, Egon Schiele, Victor Vasarely, Vera Molnar, Judit Reigl, Dóra Maurer, Georg Baselitz, Katharina Grosse eta Gerhard Richter.

Erakusketa hau Guggenheim Bilbao Museoaren eta Budapesteko Arte Ederren Museoa–Hungariako Galeria Nazionalaren arteko lankidetzari esker antolatu da. Izen handiko erakundea da azken hori, antzinarotik XXI. mendera arteko nazioarteko arte-altxorak dituen, eta haren marrazki eta estanparik preziatuenen nazioarteko aurkezpena da honakoa. 150 maisulan inguru aukeratu dira mende luzeetako marrazketa- eta estampa-tradizioen erakusle, eta hautaketak agerian jartzen du teknika horien etengabeko berrikuntza-nahia, baita haien aniztasun teknikoa, ezaugarri nagusiak eta efektu estetiko bereizgarriak ere.

Erakusketa hamabi arlo tematikotan dago banatuta. Atal bakoitzak dagokion garaia ezaugarri nagusiak erakusten ditu, eta, era berean, marrazketaren eta grabatuaren alorreko lotura eta kontu garrantzitsuenak nabarmentzen ditu. Artelanak ordena kronologikoaren eta aldi historikoen arabera banatu diren arren, zenbait kasutan sailkapen tradizionaletatik haratago doan hurbilketa narratiboa aukeratu da, artelanak sakonago ulertzen eta artearen ikuspegi eta testuinguru desberdinak esploratzen laguntzeko.



Alde batetik, erakusketak teknika ugariarekin egindako lanak biltzen ditu: ikatz-ziriz, klarionaz, Txinako tintaz, akuarela, arkatzez zein baliabide anitzez (tintaz eta arkatzez) egindako marrazkiak, bai eta xilografaiak, kalkografiak litografiak, serigrafiak zein inpresio digitalerako teknologiarik berrienak. Bestalde, pieza horiek hainbat funtzio izan ditzaketela erakusten du: zirriborroak, estudioak eta prestakuntza-marrazkiak dira batzuk, beste batzuk marrazki autonomoak edo esperimentalak dira, banakako piezak nahiz sailak, eta zenbaitzuk bestelako bitarteko bilakatzen diren obrak dira.

Hemen aurkeztutako marrazki eta grabatu sorta behatzeak lan horiek kultura bisualean izan duten eragina eta historian zehar inspiratzeko eta gogoeta sustatzeko izan duten ahalmena ulertzen lagunduko du.

Marrazketa, arte-adierazpen formarik zaharrena izanik, ideiak eta emozioak irudikapen bisualarekin lotzen dituen zubia da; izaera dinamikoak eta garai guztietako eskakizunetara egokitze ahalmenak agerian uzten dute haren garrantzia eta gaurkotasuna.

Grabatuak, berriz, erabat eraldatu du irudien ekoizpena eta hedapena, artearen irisgarritasuna demokratizatu du eta eragin handiko garaietan katalizatzaile izan da, hala nola Errenazimentuan eta Erreformen. Albrecht Dürer bezalako maisuen estanpak aztertzean, ikusiko dugu nola lan horiek, pinturarako eredu izateaz gain, toki- eta denbora-mugak gainditu zituzten ideia eta estiloen eramaile ere izan ziren.

ERAKUSKETAREN IBILBIDEA

205 aretoa

Areto honetako lau atalek XV. eta XVI. mendeetako marrazkien eta grabatuen eboluzioa erakusten dute. Lehenengo atalak "Hastapenak: XV. mendeko estanpak eta marrazkiak" du izenburua, eta XV. mendeko Europako marrazkien testuingurua nabarmentzen du. Garai horretan sortzaileak anonimoak ziren eta tailer artistiko kolektiboetan aritzen ziren.

1400etik aurrera paper-errotak ugaritu egin ziren, eta horrek marrazkiak egitea erraztu zuen. Estanpagintza ere sustatu zuen: zurezko xafla gaineko grabatuaren teknikarekin hasi ziren, eta ondoren, 1430. urte inguruan, metalezko xafla gainean hasi ziren ekoizten helburu erlijioso zein sekularretarako; kartak egiteko, adibidez.

"Dürerren mendea" izeneko bigarren ataleko lanek artista alemaniarrek Italiako Errenazimentuko berrikuntzak Europako iparraldean hedatzeko orduan izan zuen funtsezko paperaren berri ematen dute. Pintore eta grabatzaile gisa izan zuen moldakortasunak luzaroan izan zuen eragina, hala nola Hans Baldung Grien eta Lucas Cranach Zaharraren lanetan.

Garai bertsuan, paisaiarekiko interesa loratzen hasi zen, "Paisaia autonomoaren sorrera" izeneko hirugarren atalean ikus daitekeen bezala: Dürer eta haren garaikideak eszena urbanoak eta naturalak marrazten hasi ziren euren artelanetan inguruaren behaketa txertatuta. Ikuspegi hori hedatu egin zen, eta Pieter Brueghel Zaharraren lanarekin iritsi ziren gorenera. Hark, bere jarraitzaileekin batera, beste maila batera eraman zuen paisaiaren gaia, pinturan eta marrazketan arreta artistikoa jasotzeko duin bihurtzeraino.



"Giza gorputzaren irudikapena" izeneko laugarren eta azken atalak erakusten duen bezala, XVI. mendeko Italian giza gorputzaren azterketa artearen ardatz bihurtu zen, eta Leonardo da Vinci eta Rafael bezalako artistek bultzatu zuten joera hori. Leonardok, Errenazimentu goiztiarreko eta Goi Errenazimentuko artistarik ezagunenak, irudikapenak sinesgarriak izatea zuen helburu; Rafaelak, aldiz, irudi dinamikoak ezaugarri zituen estilo idealizatuagoa garatu zuen.

206 aretoa

Areto honetan bildutako obrek XVII. mendetik XIX. mendearen erdialdera bitartean egindako marrazketa eta grabatugintza erakusten dute, lau ataletan banatuta: "Errealitatearen zantzua iparraldean", "'Grandeur' klasikotik amets idilikoetara", "Erroma eta Venezia XVIII. mendean" eta "Ilustraziotik iraultza-garaira".

Lehen artelanek Herbehereetako artisten izaera naturalista azpimarratzen dute, giza aurpegiaren ezaugarriak eta paisaiaren topografia zehaztasun handiz behatu baitzituzten Elizaren doktrinak eta pentsamendu kalbinistak eraginda. Ikuspegi errealista horren ondorioz, hainbat arte-genero indartu egin ziren, tartean paisaiak, natura hilak eta genero-eszenak, eta, gainera, marrazki autonomoaren balioa handitu zen.

Frantzian, Charles Le Brunek 1648an sortutako Pintura eta Eskulturako Errege Akademia mugarria izan zen marrazketaren irakaskuntzan: gizonezko biluzietan eta historiaren irudikapenean jarri zuen arreta. Nicolas Poussinek eta Claude Lorrainek ikuspegi hori osatu eta estetika neoklasikoan eragin zuten; Antoine Watteauk, berriz, bizitza intimoa irudikatuta, ideal poetikoak esploratu zituen. Zailtasun politiko eta ekonomikoak gorabehera, Italiak, eta zehazkiago Veneziak eta Erromak, Europako artearen erdigunea izaten jarraitu zuten XVIII. mendean. Artista nagusia Veneziako Giovanni Battista Tiepolo izan zen, eta Canaletto, aldiz, *vedute* izeneko enkoizpenean nabarmendu zen, Europako bidaiariek bertako paisaiekiko zuten lilura islatuta. Iluminismoaren gorakadak kritika sozialari eman zion bide, eta horren adibide dira William Hogarth eta Francisco de Goyaren obrak. Biek ala biek, gerra garaian ohikoak diren bidegabekeriak eta giza izaeraren berezko basakeria jorratu zituzten satiraren eta kritikaren bidez.

207 aretoa

"Hemen eta orain" eta "Emozioak erdigunean" atalak dira areto honen ardatza. Artelanen hautaketak erakusten duenez, XIX. mendeko artea behaketan oinarritzen zen, eta horrexek eman zien artista errealistei eta inpresionistei errealtatea irudikatzeko aukera. Inpresionistek unean uneko atmosfera eta sentimenduak jasotzen zituzten beren lanetan. Courbet, Degas eta Pissarro artistek, garai hartako errealistek bezalaxe, maisutasuna erakutsi zuten marrazketan, formak ez ezik, bizitzaren beraren funtsa ere irudikatzea lortu baitzuten. Ondoren, postimpresionistek, Van Goghek eta Munchek kasu, giza arimaren pultsioak arakatu zituzten, eta natura emozio biziarekin lotzen zuten lanak sortu zituzten. Artearen eta psikearen arteko elkargunea ere agerian geratu zen Vienan, non Klimtek, Schielek eta Kokoschkak ausarki jorratu baitzituzten sexualitate eta psikologia kontuak garaiko arauetako desafio eginez.

209 aretoa

Erakusketaren laugarren aretoa bi atal biltzen ditu, "1945. urtearen aurreko joera konstruktiboak eta adierazkorrak" eta "1945. urteaz geroztiko bide berriak: erreferente formalak, historikoak eta pertsonalak". XX. eta XXI. mendeetako eraldaketa artistikoa du ardatz, eta aldaketa politiko eta sozialek artean izan duten eragina nabarmentzen du.



1910 eta 1920ko hamarkadetan alemaniar espresionismoa, dadaismoa eta konstruktibismoa sortu ziren espiritu transnazionalak eta argitalpenen zein artista-albumen bidezko hartu-eman ideologikoei bultzatuta. 1945etik aurrera, arte abstraktuarentzako norabide berri bat bilatu zen, eta 1980ko hamarkadatik aurrera, berriz, indibidualtasuna eta aniztasuna nabarmentzen zituzten joera postmodernoak agertu ziren. Testuinguru horretan, marrazketa eta grabatua jarduera autonomo eta konplexu bihurtu dira, euren ohiko funtzioa gainditu dute eta esploraziorako nahiz aurkikuntzarako bitarteko bilakatu dira teknologia berritzaileak eta ikuspegi esperimentalak txertatuta.

Azkenik, erakusketa honek Budapesteko Arte Ederren Museoaren Estanpa eta Marrazki Bildumaren historia aberats eta gorabeheratsua ere azaltzen du, hau da, Hungariako funtsik baliotsuenaren eta Europako estampa eta marrazkien ondare nazionalik garrantzitsuenaren historia. Testuinguru horretan, artxiboko elementuak bildu dira lau aretoetan —dokumentuak, argazkiak, diseinuak eta plano arkitektonikoak— bildumaren jatorria kontatzeko —Hungariako aristokrata-familia nagusiaren, hau da, Esterhazy familiaren arte-bildumatik abiatuta—, baita museoaren zuzendari, kontserbatzaile eta komisario askoren lan nekaezinari esker lortutako emaitzen berri emateko ere. Izan ere, lan horri esker, bilduma nabarmen handitu da, eta luze eta zabal aztertu eta erakutsi da.

KATALOGOA

Erakusketarekin batera badago katalogo bat Budapesteko Arte Ederren Museoaren Estanpa eta Marrazki Bildumaren historia kontatzen duena. Erakusketako lanak hamabi atal tematikotan egituratzen ditu, eta funtsen ibilbidea ez ezik, zazpi mendetan zehar, hau da, XV. mendetik gaur egun arte egindako artearen panoramika zabala eskaintzen du.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren baitan, erakusketen osagarri diren gune didaktikoak, eduki digitalak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu Museoak, eta tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu aurkeztutako obrak preziazten laguntzeko.

Kasu honetan, erakusketan ikus daitezkeen grabatu-teknika ezberdinak azaltzea du helburu Didaktikak. Ikus-entzunezko piezekin lagundutako testu eta irudien bidez, hainbat grabatu-teknikaren prozesua erakusten da, hala nola akuaforte, gubila, xilografia edo litografia, eta erreferentzia zehatzak egiten zaizkie artista jakin batzuei, nola diren Albrecht Dürer (1471–1528), Edvard Munch (1863–1944), Käthe Kollwitz (1867–1945) edo Franz Gertsch (1930–2022). Guztiek ere eraberritu egin zituzten prozesu grafiko horiek, inoiz grabatuek pinturak baino garrantzia handiagoa izatea lortu zuten.

Esperientzia hezigarria borobiltzeko, Budapesteko Arte Ederren Museoari buruzko bideo bat dago ikusgai, eta erakusketaren katalogoa kontsultatzeko aukera ere badago.

Programa publikoak

Inaugurazio-hitzaldia (otsailak 26)

Kinga Bódi Budapesteko Arte Ederren Museoaren Grabatu eta Marrazkien Bildumaren Arduradunak eta Marta Blàvia Guggenheim Bilbao Museoaren Arte-arduradun Elkartuak erakusketa aurkeztuko dute ireki baino lehen.



Hausnarketa partekatutak* (martxoak 12 eta 19)

Guggenheim Bilbao Museoko profesionalek gidatutako bisita horietan, erakusketa berriari buruzko hainbat ikuspegi eskainiko dira.

- Arte-arduradunen ikuspegia (martxoak 12)
Museoko Arte-arduradun Elkartu Marta Blàviarekin.
- Funtsezko kontzeptuak (martxoak 19)
Museoko Hezkuntzako Koordinatzaile Luz Maguregui Urquizarekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Mari Puri Herrero bidelagun (martxoak 28)

Mari Puri Herrero bilbotar artista ospetsuak ibilbide gidatua egingo du erakusketako zenbait artelan ezagutzeko. Herreroren ibilbidean, pinturaz gain, ekoizpen grafiko zabala ere nabarmentzekoa da.

Babeslea: Petronor

Sormen-saioa: Marrazketa-tailerrak (apirilak 3 eta 10)

Raúl Domínguez artistak gidatutako tailerrotan, marrazketan hasteko ariketen bidez, parte-hartzaileek Leonardo da Vinci, Rembrandt, Goya, Vera Molnar, Judit Reigl, Pablo Picasso eta Georg Baselitz bezalako artistek erabiltzen zituzten teknikak ezagutuko dituzte.

Artoteka bidelagun (maiatzak 9)

Saioan, erakusketa gaur egungo ikuspegitik deskubrituko dute Artotekaren arduradunek. Arte garaikidea hedatzeko plataforma da Artoteka, eta bertoko artista gazteen estampa eta marrazkien bildumak eta hedapena sustatzen ditu.

Babeslea: Petronor

Museoaren Lagunentzako jarduerak

Guggenheim Bilbao Museoaren Lagunek, gainera, erakusketaren inguruko bisita eta jarduera gehigarrietan parte hartzeko aukera dute.

Soirée, Matinée (otsailak 25 eta 26)

Erakusketa zabaldutik, komisarioen eskutik ateak itxirik egingo diren bisitak. Nazioarteko Lagunentzat eta Ohorezko Kideentzat.

Lagunartean (martxoak 6)

Erakusketa ikusteko bisita gidatua eta, ondoren, bazkaria Bistró Guggenheim Bilbaon.

Lagunentzako bisitak (martxoak 11, 14, 16, 18, 21, 23, 25, 28, 30)

Erakusketa ikusteko taldeko bisita gidatuak.

Sakonean (martxoak 25 eta apirilak 2)

Erakusketa testuinguruan jartzeko hitzaldiak eta, ondoren, bisita gidatua talde txikietan.

360° murgilketak (apirilak 10)

Doako hitzaldi birtualak Marta Arzak, Museoko Hezkuntza Digitaleko Zuzendariordearen eskutik.



AZALEKO IRUDIA

Leonardo da Vinci (1452–1519):

Buru-estudioak, ca. 1504–05

Klarion beltz leuna edo ikatz-ziria eta sangina trazua paper gainean

191 × 188 mm

Inb. zki.: 1775

Erosketa: Esterházy Bilduma, 1871

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Arloa

Tel: +344 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

PRENTSAK ERABILTZEKO IRUDIAK
Budapesteko paper gaineko maisulanak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es) erregistratu zaitezke erakusketen zein eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu egin zaitezke behar duzun materiala deskargatzeko. Dagoeneko erabiltzailea bazara, sartu zure erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta zuzenean izango dituzu eskuragarri irudiak.

- Eskainitako irudiak *Budapesteko paper gaineko maisulanak* erakusketari lotutako publizitate editorialerako baino ezingo dira erabili. Erakusketa 2025eko otsailaren 28tik maiatzaren 25era egongo da ikusgai.
- Irudiak osorik erreproduzitu beharko dira, mozketarik, gainjartzerik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera honako datu hauek adierazi beharko dira: artistaren izena, obraren izenburua eta data, jabea, copyrightaren titularra eta argazkiaren kredituak.
- Webgunean argitaratutako irudi guztiek segurtasun-neurri digital egokien bidez babestuta egon beharko dute, eta artistaren copyrighta adierazi beharko da.
- Irudi guztien bereizmena mila pizelekoa izango da gehienez alderik luzeenean. Online argitalpenaren kasuan, fitxategia txertatu egin beharko da, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin izango zaizkie hirugarrenei transferitu, ezta datu-baseetara ere.
- Irudiak azaletan erabiltzeko, artistaren alde aurreko baimena beharko da.

Leonardo da Vinci (1452–1519):

Buru-estudioak, ca. 1504–05

Klarion beltz leuna edo ikatz-ziria eta sangina trazua paper gainean, 191 × 188 mm

Inb. zki.: 1775

Erosketa: Esterházy Bilduma, 1871

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Albrecht Altdorfer (ca.1480–1538)

Sarmingsteinen ikuspegia Danubio ondoan, 1511

Lumaz emandako tinta beltza paper gainean, 147 × 207 mm

Inb. zki.: 21

Erosketa: Esterházy Bilduma, 1871

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Ugo da Carpi (lanean ca. 1502–1532) (honen arabera
Parmigianino) (1503–1540)

Diógenes, ca. 1526–27

Egurrezko lau blokeko argi-ilun bidezko xilografia, tinta arre ilun
eta arre argiz egina, paper gainean, 481 × 350 mm

Inb. zki.: 6152

Erosketa: Esterházy Bilduma, 1871

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Jan Bruegel I (1568–1625)

Paisaia, Tobias eta Aingeruarekin, ca. 1595

Luma eta pintzela, tinta arre ilun eta arre argia, urdin grisaxka eta
urdina paper gainean, 202 × 313 mm

Inb. zki.: 1307

Erosketa, 1894

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Rembrandt Harmensz. van Rijn (1606–1669)

Holandar etxaldea, argi eta itzalen artean, 1635–36

Lumaz eta ur-kolore bidez emandako tinta arrea paper gainean,
165 × 225 mm

Inb. zki.: 1576

Erosketa: Esterházy Bilduma, 1871

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Peter Paul Rubens (1577–1640)

Artistaren seme Albert Rubensen soslai-erretratua, ca. 1618–19

Klarion beltza eta sangina, lumaz eta pintzelez emandako tinta
arrea eta ur-kolore arrea paper gainean, 246 × 203 mm

Inb. zki.: 1745

Erosketa: Esterházy Bilduma, 1871

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Francesco Guardi (1712–1793)

San Zanipoloko eremua Venezian, 1960ko hamarkada

Lumaz emandako tinta arrea klarion beltzaren gainean, ur-kolore
arrea, lau pieza kolaz itsatsita osatutako paperaren gainean,
356 × 580 mm

Inb. zki.: 2814

Erosketa: Esterházy Bilduma, 1871

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Rudolf von Alt (1812–1905)

Budapesten ikuspegia, 1881

Akuarela paper gainean, 343 × 565 mm

Inb. zki.: 1933-2390

Bilduma Inperialetik transferitua, Viena, 1932

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Vincent van Gogh (1853–1890)

Nueneneko apaiz-etxeke lorategia neguan, 1884

Lumaz emandako tinta arrea ukitu zuriekin, paper gainean

515 × 380 mm

Inb. zki.: 1935-2791

Dohaintza: Pál Majovszky, 1934

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Henri de Toulouse-Lautrec (1864–1901)


Caudieux, 1893

Koloretako litografia paper gainean, 1295 × 940 mm

Inb. zki.: 1913-1444

Erosketa: Édouard Kélinmann arte-merkataria, Paris, 1913

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Lajos Gulácsy (1882–1932)

Paolo eta Francesca, 1903

Arkatza eta akuarela kartoi gainean, 331 × 252 mm

Inb. zki.: 1907-222

Erosketa: Uránia Art Gallery, Budapest, 1907

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Egon Schiele (1890–1918)

Bi emakume elkar besarkatzen, 1915

Akuarela, gouachea eta arkatza paper gainean

482 × 327 mm

Inb. zki.: 1915-933

Erosketa: Galerie Arnot, Viena, 1915

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Theo van Doesburg (1883–1931)

Konposizioa (beirate baten konposiziorako diseinua: emakume baten burua), 1917

Gouachea paper gainean, 367 × 246 mm

Inb. zki.: K.72.1

Erosketa: Sándor Bortnyik, 1972

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Andor Weininger (1899–1986)


Eszenatoki mekanikoa—Aldizkari abstraktua, 1923. urteaz
geroztikoa

Akuarela eta arkatza paper gainean, 290 × 361 mm

Inb.: F87.5

Artistaren dohaintza, 1986

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Victor Vasarely (1906–1997)


CTA-25, ca. 1965/1967

Serigrafia paper gainean, 700 × 700 mm

Inb. zki.: L.68.151

Artistaren dohaintza, 1968

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Franz Gertsch (1930–2022)


Uda II, 2019

Xilografia japoniar paper gainean, 1440 × 1250 mm

Inb. zki.: L.2024.1

Erosketa: Estate of Franz Gertsch, 2024

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest



Iris Schomaker (1973)

Bainuontzia/zoru berdea, 2021

Akuarela, Txinako tinta, olio-pintura eta klariona, paper gainean,
2390 × 1660 mm

Inb. zki.: K.2024.1

Artistari erosia, 2023

© 2025 Museum of Fine Arts, Budapest

